


Adriana Bilbao konpainiaren jantza ikuskizuna Lasarte Aretoa hilaren 25ean

12. orrialdea

Joana Kamiruaga kopilotu junior txapeldunari alkarrizketea

Joana Kamiruaga 22 urteko dimoztarra rallysprintetan Erratzuko Joseba Iñarrea pilotuaren kopilotu lanetan hasi zan igazko udan. Hainbat sari jaso dabez eta Kamiruaga kopilotu junior txapelduna izan da Malerrekako III. Rallysprintean. 10. orrialdea



Alex Txikon Himalaian dago Ama Dablam eta Everestera igoteko prest

11. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

332

2020ko urtailaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Igorreko boulderrak atekak zabaldu dauz



Erre zonetik ute bi eta erdi pasau diranean, obrak amaituta barriro zabaldu ebazan atekak boulderrak urtailaren 2an. Instalazioa 100 lagun inguruk erabilten eben 2017an eta kopuru hori

berreskuratzea eta gainditzea gura dau Udalak. Izan be, holango instalazioak bultzatu behar dirala uste dau alkateak eta horretarako ikastaroak antolatzeko asmoa agertu dau. 5. orrialdea

Araluce eta BATZ bitan batu dira konsulta fasean

Konkursoko kudeatzaile, Araluceko behargin eta BATZ kooperatibako ordezkarien artean bilera bi egin ditue: bata urtailaren 3an eta bestea 9an. Kudeatzailearen arabera, 9koa, konsul-

ta faseko atzen bilera zan, abenduaren 9an hasi zalako konsulta fasea. Bitartean, konkursoko kudeatzaileari likidazio plana prestatzea jagoko Araluce ahalik eta ondoen saltzeako. 7. orrialdea



ARRATIA

Indarkeria matxistea sufridutako 27 andra atendidu ebazan igaz AUMk

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), genero indarkeria edo-eta eraso sexualak sufridutako 27 andra atendidu ebazan 2019an. Edadeari jagokonean, 15 eta 30 urte bitarteko 7 andra izan ziran, (%26); 31 eta 40 bitarteko beste 6 (%22); 41 eta 50 bitarteko, 9 (% 33); 51 eta 65 bitarteko 3 andra (%11) eta 65tik gorako 2 (% 7,4). AUMk Gizarte Zerbitzuak eta laguntza psikologikoa emoteko zerbitzuak eskaintzen ditu. 5. orrialdea

IGORRE

Arantzartek ikuskizuna eskainiko dau Igorreko kiroldagian hilaren 18an

Arantzarte jantza taldeak 45 urte bete ebazan igaz eta, horren atxakian, gaur eta bere ibilbide luzean taldean jantzari izandakoak batuko dira barriro hilaren 18an, Igorreko kiroldagian, hainbat jantza eta muntaia eskaintzeko publikoari. Taldearen ibilbidea kontetan dauan proiektzioa be egingo dabe. Taldean ibilitakoak, oingoak, zaharrak, gazte eta umeak eta ikastaroetan parte hartzean dabenak be egingo dabe jantzan ekitaldian. Zuriñe larritik aurkeztuko dau. 12. orrialdea

ARRATIA

Pensino eta bizitza duinaren aldeko greba ez bateratua hilaren 30ean

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak deitu dau grebara; hor biltzean dira ELA, LAB eta beste sindikatu eta gizarte talde eta eragile batzuk. Greba deialdia, ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru, Etxalde eta EHNE sindikatuak erregistrau eben. "Pensinoak eta bizitza duina" aldarrikatzeko greba orokor moduan deitu bazan be, pensinodun batzuek greba babestu arren, pensinodunen mobimentu osoak ez dau babestu eta talde batek agerraldia egin eban Bilbon grebagaz bat egiten ez dabela azalduteko. Sindikatuak jagokie-nean be, ez dabe sindikatu guztiak deitu urtailaren 30eko greba. 5. orrialdea

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Prijidu



Orio berotan jatekoa erre danean prijidu dala esaten dogu (prijidu, ahoskatuta). Batuan, frijitu da. Arratia inguruan beste aldaki honeek be jaso doguz: prejidu, prijedu eta prixid. Aditza izateaz gain, berba hau adjektibo moduan be erabilten da (prijidúe edo prijedúe, ahostatuta), adibidez, zartaginean orio berotan erretako jatekoagaz: "Beharleku gogorrean dabizanak urdaia eta arrautza prijiduak jaten dabez".

ERETXIA

Bizikidetzan dago urtenbidea

Immigrazioaren fenomenoak ez da gurean barria. Multzorik handiena aurreko mendeko 60ko hamarkadan kokatzen dau Aierdik (1991). Orduko sasoiak, diktadorea indarrean egoala, etorkinen etorrerak gure gizartearen eragin handia izan eban ekonomian, zein hezkuntzan, zein hizkuntzearen erabileran, zein eraikuntzan, zein eguneroko bizitzan, besteak beste.

Lehen ez bezala, ordea, oingoan olatu txikietan, tantakadaka, heltean dira jatorri desbardinatetik gure uri eta herrietara auzo barriak. Horrek berak laguntzen deusku aurreko esperientzian ondo eginak baliatuz, gaizki egindakoak hobetzeko ekimenak abian ipinten.

Horra hor, esaterako, Migrazioarako Euskal Itun Soziala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren hizkuntza-kudeaketa erraztuko dauan ikerketea, Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerketak edota Hezkuntza Sailak interkulturalidadea indartzeko eta segregazioa ekiditeko abian jarri dituan programak.

Hezkuntzaren ikuspegitik, 2019/2020ko ikasturtea hasi barri danean, ezinbesteko ikusten dot atzen 15 urteotan gero eta larriago bihurtzen dabilen eskola segregazioaren gainean hausnarketa bat egitea, eta segregazioari aurre egiteko, batez be Gasteizko "ghetto" eskola batzuetan, abian dagoan Magnet proiektua aitatzea.

Euskal Herrian, beste autonomia erkidego askotan legez, eskola segregazioa sozioekonomikoaren tasak etenbarik gora egin dau atzen urteotan. Eskola segregazioa gelditu arazoteko eta ekiditearen printzipioan oinarritutako hezkuntza inklusibo baten aldeko apustua egingo daben hezkuntza politika falta da. Save the Children-en "Nahastu nirekin" eranskinaren arabera, gaur egun, Euskadiko 10 haurretik 4k ikasle kalteberen kontzentrazio altua daukien zentroetan ikasten dabe.



AMAIA TREJO

Irakaslea

Gure gizarteak baditu zenbait ezaugarri segregazioari bidea zabaltzen deusienak. Esaterako, ikastetxe askotan kuotak kobratzea naturalizat jotzen da, Euskal Eskola Publikoaren 1/1993ko, zezeilaren 19ko Legeak, ordea, derrigorrezko hezkuntzak doakoa izan behar daua dino. Familia batzuen kasuan eskola aukeraketan kuota horrek determinatzaileak izaten dira. Horrek ez dau bardintasuna sustatzen, eta ez deutse familiei euren umeak benetan askatasunez gura daben eskolan matrikuletea ahalbidetzen.

Matrikulazioagaz be antzeko emaitzak lortzen dira. 1/2018 Dekretuak, urtailaren 9koa, ikasle onarpenari eta eskolatzeari buruzkoak dino matrikulen %10a bete barik itxi behar dala, holan ikasturtean zehar ikasle barriak matrikulau ahal izateko. Ha-ta guzti be, orokorrean plaza guztiak beteteko joerea dago, honek ikasle barriak jasotea ezinezkoa eginaz. Gainera, matrikulazio sasoiak badagoz beste barematzeko erispide batzuk be, dala kooperatibako bazkide izateagaitik, dala gurasoak ikastetxeagaz daukien lotureagaitik. Horrek be zuzenean eragiten dabe familia kaltetuen aurka.

Gurean beste faktore bat 3 hizkuntza eredutan ikasteko aukerea da. Ikasteredu zabal honek familien egoera sozioekonomikoagaz batera, segregazioaren eragileetako bat da, eta ondorio nabarmenak ditu Arabako Lurralde Historikoan

hain zuzen be.

Bereizketearen iturburuak aintzat hartuta eta urtenbideak bilatzeko asmoagaz garatu dira Magnet-Erakarri programa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta tokian tokiko udalen artean. Proiektu honen helburu nagusia desabantaila egoeran dagozan eskolai prestigioa emotea da. Horretarako aliantzak eratzen ditue eskola "kaltetuak" ikerketa edo kultura gune ospetsuakaz. Magnet School esperientzia AEBn 70. hamarkadan jarri zan abian, familia zuriak gehiengo baltza eukien eskoletan matrikuletan animau eitezan. 2013an Kataluniara zabaldu zan Jaume Bofill Fundazioak bultzatuta.

Proiektua bera erakargarria da eta neurri handi baten segregazio maila altuko ikastetxeen gizarte-konposizioa orekatzea lortu leike profil heterogeneoko auzoetako familien interesa bituz. Bestela esanda, gizarte mailan dagoan aniztasunagaz eskolea aberastea lortu leiteke. Edozelan be, ezin ahaztu proiektuaren gauzatze prozesuan funtsezkoak dirala hezkuntza komunitatearen sensibilizazioa egitea, proiektuaren gaineko atxikimendua lortzea eta batez be giza baliabideen prestakuntzea.

Bestalde, jakinik hezkuntza eta euskerea gizarte kohesiorako funtsezko bideak dirala, etorkinen euskerearen gaitasun komunikatiboa indartzeko egitasmoak be abian jarri dira hainbat lekutan.

Zentzuak dino, eta etikak be, guk asilo eskatzaileak, edo adinbako etorkinai edo errefujiaduak eskaini beharko genkiela, gu geu egoera horretan egonda, jaso gura geunkean arreta eta laguntzea. Esaterako, andra etorkina izanda, bardintasunaren printzipioa, edota xenofobiaren aldeko diskursuaren aurrean, pluralidadea eta inklusibidadearen defentsua. Bai hezkuntza eta bai euskerea prozesu horretan ezinbesteko erremintak izango dira. Horregaitik, hain zuzen be, etorkizun hurbilerako gura dogun euskal gizarte birpentsetea jago, besteak beste euskal gizartearen nortasuna eta ongizateari eutsiz lekuan lekuko bizikidetzeta lortu ahal izateko.

Karmengo Ama Ikastetxea
AKROBATA-ETXEO

ETORRI HAZI
ETA GUREKIN

25
1030etan

Bisita pertsonalizatua eskatu ahal duzu, nahi duzunean

94 673 09 35
cm@karmengoama.eus
www.karmengoama.eus

PERTSONAGINTZAN

KISTAU
ESKOLA

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Zaharrak barri

Sentiduten dot. Badakit Pedro Sanchezen inbestidurearen gainean entzunda eta telebistan horrenbeste irudi ikusita danok gogaituta egongo zariela; baina... nik horren gainean idatzi behar dot.

Neuk be gogaituta amaitu dot Espainiako politika kontuakaz, baina zoritxarrez euskaldunoi be eragiten deusku Espainiako politikeak. Eta onartu egin behar dot politiko batzuen eretxiak (astakeriak) entzunda sutu egiten nazala, eta ostia txarra eragiten deustala, eta retroalimentazio moduko baten sartzean nazala. Eta adikzino moduko bat euki behar dot, ze hurrengo egunean be hantxe egoten naz hanka biko asto horreek ze astakeria esango.

Beste alde batetik, baina, poztu be egin naz oingoan. Aspaldiko partez, Espainiaren benetako irudia ikusi dogu, nik mutikotan ezetu nebana, euskaldunok ondo ezetuten doguna, baina azken hamarkadetan kamouflautu egon

dana. Mutikoa nintzanean kongresuko hemizikloan egoten ziran UCD, Alianza Popular eta Fuerza Nueva (eskoietik eskoirago), eta PSOE eta Alderdi Komunista; gero, funtsean, alderdi euskaldunak eta katalanak. Bazan beste alderdiren bat be, baina argazki nagusia horixe zan.

Gaur egungo hemizikloan banaketa berbera dago: Ciudadanos, Partido Popular eta Vox (eskoietik eskoirago), eta PSOE eta Unidas Podemos; gero, funtsean, alderdi euskaldunak eta katalanak. Bada beste alderdiren bat be, baina argazki nagusia horixe da.

Hemizikloaren zatirik nabarmena (gehien nabarmenduten dana esan gura dot) eskoioa da, esaten dabezan astakeriak; eta behingoz, agirian geratu dira atzera. Azken hamarkadetan demokrazia berbaz eta biktimismoz egindako laino baten ostean ezkutatu dira. Baina oin ezin dabe ETaren indarkeriaren kamouflajea jantzi, eta agirian geratu dira atzera. Trintxera barik dagoz, eta tripetan daukien gaixoak agirira urten deutse. Barriro hasi gara entzuten gordean euki dabean eta beti euren-eurenak izan diran esanak: Arriba España!

Beraz, badago pozteko arrazoirik be: azkenean tximinoak eperdia agirian oin be.

ZERTZEAN



KARLOS ARETXABALETA

Sekulako ziria

Gabon Gauda Detroiteko kaleetan, elurra mara-mara dabil, eta Motor Cityko pariak, inurritxoak bailiran, aterpe bila dabilta 8 Milletik zehar. Hotz dira, ziur asko, negu gorrian 2Pack-en abestirik beroenak nekez berotu baititzake kaletar bakartien gorputz jelaatuak.

Eguberria heldu da Osloko desintoxikazio zentro batera. Heroinak gazte bi zimeldu ditu, udazkeneko hosto horiak balira bezala. Hurrengo neguan orbel bilakatuko da gure bikotea; drogatzeraz joaten diren parkeko zuhaitzak eta txoriak baino ez dira hortaz ohar-tuko. Gainera, Santa Clausek aurten ez du oparirik utzi.

Gabon zahar gaua Moskuko metroan; bertan, bigarren mailako bidaiaririk ez dago. Bigarren mailako Plaza Gorriaren atzean dagoen beste plaza ilun eta ospel batean ostenduta daude, gasolina eta kola esnifitzen. Kola botea talde osoarena da; aspaldi boterea herritarrena zen bezala.

Urte berria Txinan. Lufeng eskualdeko Boshe herrian, "Old Shangai" izeneko jatetxetik irten berri

da bertako behargin bat -19 orduko txanda egin ondoren- zigarreta eskuan daramala. 47 zigarreta erre ditu jada. Handik eta egun batzuetara hilda aurkituko dute bere etxeko atarian zamako min-bizirik janda. 40 urte eta amets ugari zituen urte honetarako. Hori zioten, sikiera, bere lankideek.

Errege bezpera Guatemalako Puerto Barrios auzoan. Bi gaizkile-talde armak banatzen ari dira taldekideen artean. Salvatrucha eta 18 marek egun gogorra dute aurretik; gaur ezin daitezke etxera bueltatu "opariak banatu" barik.

Errege eguna. Gazako ortzimuga gorritz jantzi da. Goiz gorri, arrats euri esan ohi du errefrauak. Palestina, aspaldi, goiz eta arrats gehienak odola bezain gorriak dira. Noizbait, euri tantakaden hotsek Israelen misilak isilarazi dituzte. Aurten Errege Magoek, orain 2000 urte ez bezala, ez dute umerik (a)gurtu.

Zergatik umetan sinestarazi zidan gizarteak Gabonak leku guztietan berdinar zirela? Sekulako ziria sartu zidaten...

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Urte barri egunean mendira igoteko ohitura dago gurean, eta holan egin dabe ubidezarrak be, bialdu deuskuen argazkian ikusten dan legez.

Urte barri egunean, Eneabeko tontorrean, saldea, txorizoa, gaztaia, ardaoa eta txanpana jan edanez, "urte barriari diosal edo topa egin ondoren" egindako argazkia da ondokoa.

Atzean, Gorbeiko kurutzeta.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48, 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Olatondegia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentiloa 101
R.P.S. 3/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Bilkaidea, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 83 - 908 88 6 018

Troka
Luzeneko gurek
osena!
Luzeneko gurek
osena!
Luzeneko gurek
osena!

IGORRE

Igorreko boulderra zabalik

Urteagaz batera, urtailaren 2an zabaldu ebazan ateak Igorreko boulderrak, barriro be eskalada zaleai herrian eskaladea praktiketako aukerea emonaz.



Zabalik dago boulderra barriz.

Erredakzinoa

Erabilteko arauak, lehengo bardiak dirala dino alkateak eta kuota bat pagau daben erabiltzailei giltzea emoten jakie ondoen jatorrien ordutegian erabili ahal izateko. 2017ko maiatzean kiskalitan zabaldu eta 2019ko urri lehenengoan hasi ziran berregiteko lanak. Zut enpresek egin dauz lanok, 178.707 euroko adjudikazinoaz. Aseguru etxetik 151.961,14 euro jaso ebezan Udalak.

Erre aurretik 100 lagun inguruk erabilten eben instalazinoa eta erabilera handitzea gura dau Udalak. "Nik uste dot holango instalazinoen erabilera sustatu egin behar dala eta ikastaroak emotea horretarako bide bat da. Lehen be egoten ziran ikastaroak

ume eta gaztetxoentzat. Eskalada andra talde bat be baegoan" azaldu deutso BEGITURI Illart Gurmuzio Igorreko alkateak.

Giltzea Kultur Etxean

Erabilteko ez da derrigorra Igorren erroldatuta egotea, baina boulderraren instalazinoak erabilteko eskaerea egin behar da Igorreko Kultur Etxean. Eskaerea egiten dabenak, holango jardueretarako aseguruia izan beharko dabe eta erabiltzaile bakotxari giltzea emongo jako fiantsa bat pagauta. 16 eta 18 urte bitarteko erabiltzaileak guraso edo tutorearen idatzizko baimena behar dabe eta 16 urtetik beherakoak nagusi batez erabili behar izango dabe boulderra.

Goizeko 07:00retatik, gaueko 23:00etara praktikau ahal izango da eskaladea bertan.

ARRATIA

Hogeta zazpi andra atendidu ebazan AUMk 2019an, indarkeria matxistea dala-eta

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), genero indarkeria edo-eta eraso sexualak sufridutako 27 andra atendidu ebazan 2019an. Edadeari jagokonean, gazte eta helduak izan ziran gehienak, edadekoak askoz gitxiago jotzen dabe Mankomunidadea indarkeria matxistea dala-eta.



Erredakzinoa

2018an, 16 izan ziran, baina horrek ez dau esan gura andren kontrako indarkeria kasu gehiago izan ziranik 2019an, AUMera kasu gehiago heldu zirala baino. "Datu honeek esaten deuskuen gauza bakarra da andra gehiago heltzean dala zerbitzura eta jarraitu behar dogula lan horretan: zerbitzuak eskuragarri egiten eta informazioa eskaintzen. Inportantea da andrak jakitea AUMn badagozala Gizarte Zerbitzuak eta Zutituko

Arreta psikologikorako zerbitzua".

Gazte eta helduak

Andran kontrako indarkeria estrukturala izanda, edade guztietako gizonak eragin eta edade guztietako andrak sufriduten dabe. Hata guzti be, AUMk atendidutako andra gehienak 50 urte baino gitxiagokoak izan ziran: 15 eta 30 urte bitarteko, 7 andra (%26); 31 eta 40 bitarteko beste 6 (%22); 41 eta 50 bitarteko, 9 (% 33); 51 eta 65 bitarteko 3 andra (%11) eta 65tik gorako 2 (% 7,4).

Atzen urteetan, AUMera jo daben andren kopurua, hauxe izan da. 2016an, zemendiaren 25era arte, 23; 2017an, be zemendiaren 25era arte, 13; 2018 osoan, 16 eta 2019an, 27.

AUMko zerbitzuak

Indarkeria matxistea sufridu daben andrak atendidutako, AUMk Gizarte zerbitzuak eta Zutitu, Foru Aldundiko laguntza psikologikoa emoteko zerbitzuak dagoz. Gizarte Zerbitzuetan, zalantzak argitu eta orientabideak jasoten dabez andrak; baita laguntza ekonomiko eta tramite juridikoen gaineko informazioa be.

Zutitu, Foru Aldundiko laguntza psikologiko espezializadu zerbitzua be eskaintzen da AUMn. Han, profesional espezializadu batek emoten dau laguntza psikologikoa, hitzordua zuzenean hartuta eta andrearen eritimoa errespetauz. Iraganeko indarkeriaren ondorioak be tratetan ditu Zutituk.

Laguntza jasoteko telefonoai jagokienean, AUMko telefonoaz gainera, 900 840 111 telefonora edozein ordutan deitu daiteke, 24 ordukoa eta anonimoa da.

ARRATIA

Eskubide Sozialen Gutunak greba deialdia egin dau urtailaren 30erako

Hainbat gizarte eragilek eta sindikatuk babestu dabe greba, baina pensinodunen mobimentuko kide batzuek ez dabe bat egiten grebagaz. UGT eta CCOO sindikatuak be ez dabe babestu greba deialdia.

Erredakzinoa

Deialdia, ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru, Etxalde eta EHNE sindikatuak erregistratu eben, sindikatuak egitea eskatzen daualako araudiak. Lan, pensino eta bizitza dui-

nen aldeko greba izan gura dau, aberastasunaren birbanaketea eta eskubideen unibersaltasuna aldarrikatzeko. Antolatzaileen arabera, bestelako eredu sozio-produktiboa eregi behar da, bizitza erdigunean ipinteko eta zaintzari

eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emoteko.

Hori dala-eta, hilaren 30eko grebaren helburuak, besteak beste, 2011 eta 2013ko erreformetan onartutako pensino murrizketak indarbakotzea, 1080 euroko gitxieneko pensino exijidutea eta Zapateroren eta Raxoiren lan erreformak bertan behera ixtea dira.

Pensinodunen mobimentu zatitua

Hego Euskal Herriko pensinodunen mobimentuak urte bi daroaz pensino duinen alde astero mobilize-

tan eta pausu bat aurrera egiteko premia sentidu eben. Beste alde batetik, oin dala sei urte sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzean dabezan Gutuna egin eben. Mobimentu bi honeen arteko konfluentziak ekarri

eban greba deialdia. Baina pensinodunen talde batek ez dau greba babestu eta mobimentuko beste kide batzuei, greba deialdian "alde bakartasunez" jokatutea eta "pluralitasuna ez errespetetea" leporatu deutsee.



IGORRE

Azoka solidarioak 1.712 euro batu ebazan Indautxuko jantoki sozialarentzat

Erredakzioa

Euren seme-alabak ekintza solidario baten parte hartzea gura eben eta azoka solidario bat anto-

latutea pentsau eben Igorreko lau andrak. Holan, zemendian zehar, salgaiak batzeari ekin eutsien eta igazko abenduaren 19an, arrastiko 15:30etik 20:00ak aldera arte, Igorreko autobusaren markesina atzean, batutakoa saldu eta emondako jaiotza bat zozketatu eben 1.712 euro batuz.

Gazte solidarioak, horixe da eta taldeari ipini deusien izena, ez eben inondik espero ez herriaren erantzuna, ezta arrasti baten hainbeste diru jasotarik. Oin, euren proiektuagaz jarraituteko, umeakz batera joango dira dirua entregetan.

Aurten be, barriro zabalduko dabela azokea iragarri dabe.



Azokako irudia.

BEDIA

Forjas Unidas enpresea mobilizazioetan soldatak ordaintzeko eskatzeko



Forjas Unidaseko langileak protestan.

Erredakzioa

Bediako Forjas Unidaseko 43 beharginak greba egin eben urtailaren 10ean eta 14an, enpresei zor deutesan hiru nominak ordaintzeko eskatzeko. Hilaren 16rako be, greba eguna dago deituta.

LAB sindikatuak jakitera emon dauanaren arabera, Forjas Unidasek hiru hileko soldatea zor deute beharginai. Egoera horren aurrean, beharginak, euren

ordezkarien bidez, enpresei konponbideak eskatzeko eskatu eutsiezan abenduan. Enpresearen zuzendaritzak konpromisoa hartu eban plan industrial bat aurkezteko eta zorra urtailaren 8a baino lehen ordaintzeko. Baina enpresek ez dau konpromisoa bete.

Hori dala-eta, langileen asanbladeak mobilizazioei ekitea ebatzi eban. Mobilizazio egutegia urtailaren 10ean hasi zan, beharginen %100 egin eban bat grebeagaz.

ARRATIA

Arratia mailan Euskaraldia prestatzeko foro irekia hilaren 22an Igorren

Erredakzioa

Urtailaren 22an izango da, Igorreko Kultur Etxean 18:30etik 20:00etara. Bertan, Arratiako herri bakoitxetik joandako norbanakoak eta eragileak batuko dira aurtengo Euskaraldia prestatzen hasteko.

Foia Euskaltzaleen Topaguneak antolatu dau Euskaraldiaren bigarren edizioaren nondik norakoak azaldu eta honek ekarri daitezkan zalantza erantzuteko. Han, Arratian dagozan batzordeak zelan indartu eta herri batzordeak ez dagoan herrietan, batzordea bultzatzeko premia landuko da beste gai batzuen artean, eta tarte bat eskainiko jakie herri batzordeak eta herri batzorde potentzialak euren artean bizipenak, desioak,

ikuspuntuk eta zalantzak partekatzeko. Eskualdetasuna eta Arra-

tiako herrien arteko kohesinoa be landuko da.



LEMOA

Lemoa Pausoz Pauso erronka abiatu dau Udalak

Erredakzioa

Bizimodu aktiboa eta lemoaztarren artean ariketa fisikoa bultzatzeko asmoz, Oingabiz ekimenaren barruan, Lemoako Udalak lemoaztarri egunean gitxienez 8.000 pausu egiteko erronka bota deute Lemoa Pausoz Pauso kanpainaaren bitartez.

Urteagaz batera hasi da kanpaina. Hile bakoitxeko lehenengo aste bitan izena emon eta zezelean hasiko dira lehenengo hamar personak. Hileko lehen egunean hasi eta azken egunean amaitutea eskatzen da. Egunean gitxienez 8.000 pausu egitea da erronka.

8.000 pausu

Aplikazio baten bidez jakingo dau

partaideak ea eguneko helburua bete dauan ala ez. Podometroa mobikorrari konektatu eta mobikorrean ikusi ahal izango da asteko zein hileko grafikoa, pausuen zenbatekoa.

Erronkan bakarrik zein taldeka hartu daiteke parte. "Lagun taldeagaz be hartu daiteke parte, podometroaren aplikazioak besteakaz konektetako aukerea dauka, baita besteen emaitzak ikustekoa be. Lehia sortu ezker, erronka lortzea errazago izango da" azaldu deute BEGITURI Pablo Rodriguez Gizartegintzako Teknikariak.

Oingabiz

Oingabiz zerbitzua bigarren etapa baten sartu dala uste dau teknikariak eta oin zerbitzua hobetutea da helburua. Lehen etapan, marka

LEMOA PAUSOZ PAUSO ERRONKA

Pauso txikiak egingo gaituzte aktibo!



Hilabetero 10 pertsonak burutuko duten erronka: bakoitzak egunean gutxienez 8.000 pausu ematea

Cada mes 10 personas llevarán a cabo esta desafío: dar un mínimo de 8.000 pasos al día.

sortu zan (logoa, aurkezpena...) herritarri ezetuten emoteko eta erabilpen minimo bat lortu zan; Cementos enpreseagaz alkarlana eta edadeko personai bideratutako ariketa talde bat be sortu zan.

Bigarren etapa honetan, osasun zentroa, proiektuaren sarera batu da eta jente gehiago hasi da zerbitzua erabilten. Izan be, familia medikuak Oingabiz orientazio zerbitzura bideratzen dabe jentea. Edadekoen taldea be handitu da aurten eta erronka honeguz, Oingabiz zerbitzua herritar gehiagora ailegetea espero dabe Udaletik.

Rodriguezek Oingabiz ekimenaren oin arteko emaitzen balorazio ona egiten dau, "positiboa da duda barik: lemoaztarren bizimodua aktiboago bilakatuteko, osasuntsu sentidu eta mantenduteko, zahartzeko oparagoa eukiteko, obesidadeari eta pasibotasunari aurre egiteko...".

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goietiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Abel Lapatza Iza

Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima

946 317 252
608 287 249



IGORRE

Hildako bat kotxe istripuan Igorreko saihesbidean

Erredakzioa

Istripua urtailaren 8an izan zan, goizeko seirak aldean. Kotxe bik aurrez aurre jo eben alkar eta gidarietako bat bertan hil zan. Hildakoa Gasteizko Mercedes Benz-en behar egiten eban 25 urteko zornotzarra zan, gaua beharrean egin ostean, bere txandea amaituta etxera joanean izan eban istripua. Gidari biak auto barruan harrapatuta geratu ziran eta suhiltzaileak egin behar ebezan erreskate lanak. Beste kotxeke gidaria, 52 urteko gizonezkoa, Galdakaoko Ospitalera eroan eben larri zaurituta. Ertzaintzak ikerketea abiatu dau jakiteko zergaitik gertatu zan istripua.

IGORRE

Umeen kontrako sexu abusuen gaineko berbaldia

Erredakzioa

Gure Sarea Elkartek, Arratiako Mobimentu Feministek eta Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta, urtailaren 28an, 18:30ean, *Haurren aurkako sexu abusuen* berbaldia izango da Gure Sarea alkararen eskutik Igorreko Kultur Etxean.

Arratiako Mobimentu Feministek urtail eta zezelean zehar mozinoak aurkeztuko ditu udal-tan, umeen sexu abusuen lotura daukan Guraso Alienazio Sindrome faltsua deuseztatzeko eta holango egoeretan dagozan andra eta umei babes eskatzeko.



IGORRE

Konsulta epean irregularidadeak salatu dauz Batz-Aralucek

Konkursoko kudeatzaile, Araluceko behargin eta BATZ kooperatibako ordezkarien artean bilera bi egin ditue: bata urtailaren 3an eta bestea 9an. Kudeatzailearen arabera, 9koa, konsulta faseko atzen bilera zan, abenduaren 9an hasi zalako konsulta fasea.



esan eutsen batzordeko ordezkariak, urtailaren 9an. Kudeatzaileak hile bat dauka enpresea ahalik eta ondoen saltzeako txosten bat presatzeko.

Hilaren 3 eta 9ko bilerak

Hilaren 3ko bileran, Araluceko beharginak, Mondragon taldeko beste enpresetan txertatzeko eskatu eutsien BATZ kooperatibeari; baita informazioa eskatu, Araluce eta BATZen arteko lege hartu-emonari buruz. Izan be, honek eragina izan ahal dau kontratuak azkentzeko enplegu erregulazino espedientean. BATZ kooperatibek 2016an Araluce erosi eban arren, "Araluce bere kontuez arduratzen dan soziedade burujabea" dala dinoe BATZetik eta konkursoko prozesua "errazoi ekonomikoakaitik" danez, ez dabe uste eragina izango dauanik.

Hurrengo bileran, 9koan, beharginak taldeko beste enpresetan sartzeako proposamenari ez eutsala erantzun BATZek, ezta beste proposamenik egin be dinoe Enpresa Batzordekoak. Eta eskatutako informazio guztia be ez eutseela emon.

Bulegoko beharginak beharrean

Konkursoko kudeatzaileak deituta, beharrean dagoz bulegokoak. Enpresa Batzordearen arabera, nominak prestatzen eta konkursoko kudeatzaileak euki ahal dituan dudak argitzeko informazioa batzean dabiz.

Erredakzioa

Araluceko Enpresa Batzordekoen arabera barriz, urtailaren 3ko bileran, amaituteko 6 egun falta ziran, jakin eben epea abenduaren 9an hasi zala eta aurretik beste 3 bilera egin da egozala konkursoko kudeatzaile eta BATZeko ordezkariaren artean, konsulta fasean. BATZ kooperatibek ordea, notifikazioa abenduan eta modu egokian egin zala dino. Araluceko Enpresa Batzordeak helegitea ipini dau irregularidadeak salatuz, eta oin epaitegiak ebatzi beharko dau konsulta epea amaitu dan ala ez; edo-eta errepetidu egin behar ete dan konsulta fase hori.

Bitartean, konkursoko kudeatzaileari jagoko likidazino plana prestatzea. Kudeatzaileak, likidazino planik artean ez ebalu prestatu

ARTEA

Mugak Zabalduz karabaneak topaketea egingo dau

Erredakzioa

Aurreko urteetan, Madrilan, Salamancan eta Valentzian batu ziran. Aurten, Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia Plataformea izango da anfitrioi eta Arteko herria topaleku. Urtilaren 24tik 26ra, Mugak Zabalduz karabane osotuten dabezan estaduko lurraldeetako kolektiboen

ordezkariak biduko dira Artean, aurreko karabanearen ebaluazino egiteko, datorrenaren norakoa ebatzi eta planifiketako, sarea leku barrietara zabalduteko eta ekimenak eta kanpainak konpartiduteko.

Hori dala-eta, publikoari zabalik izango diran kontzertuak egongo dira Herriko Bentan bariku eta zapatu gaubean, 22:30etik aurrera.

LEMOA

Aurrekontu sozialak eta inbersino aldetik be handiak 2020rako

Erredakzioa

Udalak 4.321.752 euro kudeatuko ditu, igaz baino %1,9 gehiago. Aurrekontuak alde sozial indartsua daukie, baita inbersino handiak be.

Aurrekontu honeen helburua, bardintasuna, kulturazintasuna, euskerea, gizartegintzea, ariketa fisikoa, prozesu parte hartzaileak, ingurumena eta abar egonkortzea da eta horretarako diru partidak dagoz. Aitatzekoak dira, gizarte ekintzetarako dagozan 46.500 euro, memoria historikorako 60.000 euroak, edo-eta baso landaketarako 82.300 euroak. "Kultur prozesuan ebatzi ziranak beteko dira; hau da, Kultur Etxea amaitu eta Elizondoko Kultur-guneko proiektua eta obra egin. Baso landaketa bat be egingo da bertako zugatzak landatuz..." azal-

du deutso BEGITURI Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Inbersinoak

Aurreko urteetako proiektuak egonkortzeko edo-eta barriak abiatuteko, diru partida barriak dagoz aurtengo aurrekontuetan. Izan be, Abadetxeko Kotxepin Kultur Etxeko obrak amaituko dira martian, eta Kultur Etxea martxan ipiniko da. Holan, aurrekontuetan, altzariak ipinteko 165.000 euro dagoz eta ekintzetarako 45.800 euro.

Inbersinoai jagokienean, "mobikortasun plana apliketan jarraituko dogu, Arraibi auzoko bigarren faseko obrak egingo dira. Horretarako dirua erremamentetik gehitu behar da aurrekontuetara. Eraikin publikoetako eraginkortasuna eta herriko saneamentuak barritzatzen amaituko dogu" dino alkateak.



Arraibi.

Artxiboko irudia.

LEMOA

Airearen kalidadearen inguruko berbaldia

Erredakzioa

Urtailaren 23an, Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatuta, *Badakigu zer arnasten dugun gure herrian?* izenpeko berbaldia egingo dau Joseba Belaustegi, GuraSOS alkarreko kideak. Hizlariak, "airearen kalidadearen neurketa ofizialen iruzurra", erraustegien eragina osasunean eta Zubietako erraustegien aurkako ekimenaren esperientziaren gainean egingo dau berba. Hitzordua 19:00etan da Lemoako Kultur-guneko gela lilan.

Makatzak Arratiako Ekologistak igaz sortu zan eta Arratiako arazo ekologisten gaineko konzientzia sortuteko antolatuten ditu berbaldi eta eztabaidak. Erraustegien gaia, "Cementos Lemonagaz

lotuta dago. Badakigu eragina daukala herrian eta herritarren osasunean eta asmoa da antzeko arazoa daukien beste herri batzuen egoera ikustea eta euren-gandik ikastea" azaldu deutse BEGITURI Makatzak taldeak.

GuraSOS

GuraSOS alkarrea, Gipuzkoako Zubietako erraustegiak, osasunean, batez be umeen eragaitik kezkatuta, erraustegiaren kontra burrukana egiteko sortutako alkarrea da.

Zubietako erraustegian zemen-dian hasi ziran probak egiten eta 2020an guztiz operatibo egongo da. Linea bietako bakotxean, urtean 100.000 tona zabor erretzeko gaitasuna dauka.

ARRATIAKO KALENTURAK IPUIN EROTIKOEN LEHIAKETA

Sokada baten hiru muturrak

Ipuin lehiaketeak segida euki ezker, urte batzuk barru liburu baten argitaratuko dira Arratiako Kalenturak Ipuin Lehiaketako ipuin saridunak eta akaso, finalista izandako batzuk. Bitartean, irakurleak holan eskatuta, aurtengo irabazlea dakargu orriotara: Ernesto Prat Urzainki "Little"ren *Sokada baten hiru muturrak*, hain zuzen be.



Ernesto Prat Urzainki "Little"

Duela hamabortz bat urte utzi nuen kirol eskalada eta, egia errateko, zergatia ez dut ongi gogoratzen. Motibazio falta seguruenik. Gogoekin lotutako sentsazioa edo. Orain, sentsazio haiek hausnarketa argudiatuan antolatuta, erran dezaket kirol eskaladak duen abentura falta izan zela motibazioa galtzearen arrazoa.

Gimnasia ez naiz inoiz joan. Gimnasio hitza aditzen dudan bakoitzean hamster baten irudia datorkit burura, bere kaiolako zirrikan kilometroak alferrik egiten. Gimnasioetako gauza interesgarri bakarra dutxak izan daitezke, baina ez arrazoi lizunengatik, jakinmin hutsagatik baizik. Ze proportzioa dago gizon eta emakume gihartsu horien gorputzetan? Kulturisten bainujantzi txikitxoak ikusita, ze leku dute zakilek eta titiek giharren artean? Kanpotik ikusita, traba bertzerik ez dietela egiten ematen du. Gustura ikusiko nuke kulturista koadrila bat biluzik. Irudi xelebre iruditzen zait.

Rokodromora ez naiz inoiz joan. Sobera antza hartzen diot gimnasioarekin. Rokodromoe-tako gauza interesgarri bakarra dutxak izan daitezke, baina ez jakinminagatik, lizunkeriagatik baizik. Ba al dago eskalatzailearena baino gorputz perfektuagorik? Ba al dago eskalatzaile baten mugimenduak baino ekintza kitzikaga-

rriagorik? Ba al dago eskalatzaile baten malgutasuna baino gauza iradokitzaileagorik? Askotan irudikatzen dut eskalatzaile bat biluzik, rokodromoan eskalatzen. Eta masturbatu egiten naiz.

Aurten kirol eskaladara itzuli naiz, entrenamendu modura, eskalada klasikoko bideak igotzeko helburuarekin. Klasikoko bideak eskalatu nahi nituen, abentura bila, eta kirol eskalada entrenamendu praktikoa zen. Kirol eskaladako sektoreak, orokorrean, autotik hurbil egoten dira, paretako bideak ongi ekipatuak, eta luze batekoak izaten dira gehienetan. Eskalada klasikoan, aldiz, mapak eta GPS-ak behar izaten dira maiz paretaraino ailegatzeko, paretako bideak luze askokoak izaten dira, bilatu egin behar dituzu, eta ez daude erabat ekipatuak. Zure burua babesteko zuk zeuk sartu behar dituzu seguruak paretan, eta horrek guztiak emozioa ematen dio abenturari. Abentura ematen dio eskaladari, hobeki erranez.

Udaberrian mezutxo bat idatzi nion Emeri:

"Aupa! Aspaldiko!" Eme gaztetako laguna zen, eskalatzen genuen garaikoa, hain zuzen. "Zer egin behar duzu larunbatean? Joanen gara eskalatza?"

Ez nion bertzerik idatzi, nahiz eta gutxitan ikusia genuen elkar azken urteetan. Apur bat urduri itxaron nuen bere arropostua,

mugikorra aldika begiratuta.

Bere ohiko naturaltasunez erantzun zidan.

"Aupa, Ese, aspaldiko, zer moduz? Bai!"

Hori zen Eme, motibatzen erraza gehiago galdetu gabe.

Lagun onak izanak ginen unibertsitatean, bestaz besta irri eta orro. Polita zen bera, eta polita nintzen ni. Hala ere ez ginen bikote moduan inoiz atera. Ez dakit zergatik. Ez ginelako eskatzaera ausartu seguruenik. Behin liatu ginen, goizaldean, Iruñeako karrika hotzetan. Mozkorrak, muturrak jan genizkion elkarri, besarkaturik. Gure esku izoztuek gure gorputz beroen zokoak bilatu zituzten arropen tolesturen artean. Egunsentiarekin nork bere bidea hartu zuen, nork bere ametsekin desiraren uleran. Ez genituen gorputzak berriz lotu, ez genuen gau hartakoa inoiz gure artean komentatu. Porrotari beldurak tabua ezarri zuen gure artean. Lagunak ginen. Lagun onak.

Idatzi nion arratsaldean, mugikorreko mezuak enegarrenez irakurrita, eskaladak aukera berri bat eman behar zigula otu zitzaidan, eta Emeren gorputza memoriarekin ibilita masturbatu nintzen. Horren hotz, horren bero.

Peñartean gelditu ginen lehen larunbat hartan, Alaitz mendilerroan. Arras puntual agertu nintzen hitzordura, beti bezala. Eme aldiz, berandu agertu zen. Beti bezala. Ezustekoa baina, autotik ateratzean eman zidan, ez baitzertorren bakarrik.

-Aupa Eme, zer moduz? -Bi muxu eman zizkidan.

-Hau Erre da, nire bikotea.

Istant batez moztuta geratu nintzen. Zozo aurpegiarekin nik uste. "Urde ilupa!" pentsatu nuen nire baitan eskalatzeako hitzorduari zita kutsua hartu izanagatik.

Igarotako denbora eta garai bateko bizipenak izan genituen solasgaia lehen momentu haietan eta, gehiago luzatu gabe, sektorea aukeratzeari ekin genion.

-Lehen Plakara joaten ginen beti. -Nik Pachá sektorea ezagutzen dut.

-Arroilaren bukaeran Orraun ize-neko sektore berri bat ekipatu

zuten...

Orraun ez genuen ezagutzen eta horra joatea erabaki genuen. Sentsazio berriak bilatzen genituen, paret berriak.

Bortzgarren gradu bideak eskalatu genituen, gure mailan, garai batean bezala eta, hasierako ezustekoa pasatuta, ederki joan zen eguna. Emek beti bezain goxoa izaten jarraitzen zuen eta Errek jatorra zirudien. Gustura egon ginen. "Pachuca" bidearen ondoren, "El Alacran" eskalatu genuen. 5b maila markatzen zion liburuak, aurrekoari bezala. Gogotsu, bidea irekitzeari ekin nion. Ongi ailegatu nintzen goitiko bilgunera, goiko aldeko pausua zailxeagoa iruditu zitzaidan arren. Emek berak jaitsi ninduen. *Top rope* teknika erabili beharrean, soka kendu eta bidea berriz irekitzeari ekin zion Emek. Nahi gabe, zeramatzan kotoizko elastiko estuek bildu zuten nire arreta. Emek paretan goiti zihoan, hanka zabal-zabalik, eta nik, bere hankartearen azpian goiti begira, ez nion begirik kendu. Une batez lotsa eta guzti sentitu nuen, ez begiratzeko moduan, hain lotsagabe iruditu baitzitzaidan, baina begiratu egin behar nuen. Aseguratu egin behar nuen. Pausu zailera ailegatu zen eta, igarotzeko tokirik egokienaren bila, hainbat mugimendu hasi zen probatzen, arnasestuka. Ohartu orduko, nire eskuak tenkatutako gorputz hura ferekatzen ari zirela hasi nintzen irudikatzen. Gure gorputz biluziak inarrosi genituen gose aseezina itzali nahian eta, aiene neurri gabe, azalak erre arte estutu genituen gure gutziak...

-Kasuuuu!!!

Segundo-milaren bat kostatu zitzaidan erreazionatzea eta oso azkar gertatu arren, kamara geldoan bezala ikusi nuen dena. Emek oihu egin zuen-begiak ireki nituen ahalik eta soka gehien biltzen ahalegindu nintzen-paretan beheiti erori zen Eme-*gri-gria* blokeatu egin zen-sokak tiraldia eman zion txapatutako azken seguruari-Emeren arneseko zortzi korapiloa estutu egin zen-sokak gorantz tiratu ninduen-Emek kolpea hartu zuen paretaren kontra-nik paretaren kontra jo nuen ere...

-Buaaa!

-Osssstia!

Erorketa handia eduki zuen Emek, metro batzuetako hegal-dia. Gainera, hanka batean trabatua zitzaion soka erortzean eta mina hartua zuen.

-Jaitsiko zaitut?

-Ez! Berriz saiatuko naiz!

Saiatu eta lortu egin zuen. Bilguneraino ailegatu zen bigarren saiakeran. Erre izutu egin zen Emeren erorketarekin eta ez zuela bide hura probatu nahi erran zuen. Maila bereko bideen artean egoten diren maila ezberdintasuna izan genuen hizpide autorako bidean eta, gustura egona ginela eta errepikatu behar genuela aipatuta, muxu pareta emanik agurtu genion elkarri.

Aste batera, bertze mezu bat igorri nion Emeri eta Etxaurira joateko gelditu ginen. Berriz ere, Errerekin agertu zen. "Iniciación" sektorean, "Kakaculopedopis", "Betizu", "Txirri", "Mirri", "Epi" eta "Blas" bideak eskalatu genituen. Soka kenduta, bidea irekitzen igo genituen hirurok, baita Errek ere. Erre ez zen aunitzetan eskalatzera joana, baina arras kirolaria zen betidanik eta hagitz fisiko egokia zen eskalatzaile ona izateko. Konfiantza apur bat falta zuen bere buruarengan.

Emek aipatu zuen gustura itzulia zela eskaladara, eta plan ona izan zitekeela astean behin gelditzea. Errek berehala erran zuen ideia ona iruditzen zitzaiola, gehiago eskalatu nahi zuela. Nik, birritan pentsatu gabe, baiezkoa eman nion proposamenari. Nik ere eskalatu nahi nuen gehiago, eta ni ere itzulia nintzen gustura eskaladara Emerekin.

Emek WhatsApp talde bat egin zuen asteroko hitzordua finkatzeko. Hortik atera nuen Erreren telefono zenbakia. Bere profileko argazkia begiratu nuen eta inbidia apur bat eman zidan. Emerekin besarkaturik ageri zen irribarretsu. Erre aski jatorra zela pentsatu nuen eta Emegatik poztu nintzen. Ideia hura kontsolamendu erraza iruditu zitzaidan.

Asteak joan asteak etorri, sektore eta paret zaharrak eta berriak korritu genituen. Etxauri, Peñartea, Aiztondo, San Fausto... arratsalde pasa ederrak egin genituen udaberrian eta udan zehar. Udako gau bero batean, hain zuzen, etxean nintzen gogaiturik. Telebistako ehunka kateetan ez zegoen fundamenduak ezer, irakurtzen ari nintzen nobelaren trama poliki moteldua zen eta, bertze alternatibarik ez, ohar-tzera sartu nintzen. Goiz samar izaki, bueltaka hasi nintzen ezin loak hartuz. Eskuinetara, ezkerretara, goiti, beheiti... Ohartu orduko hankartearen neukan eskua,

goxo, ferekan. Begiak itxi nituen eta arnasa azeleratzen zitzaidala nabaritu nuen. Bat-bateko beroak ito ninduen eta tapakia kendu nuen gainetik, nire gorputz biluzia eskainiz. Erreren gorputz biluzia etorri zitzaidan burura, nire parean bihurrituta. Erre masturbatzen ari zen nire aurrean eta horrek eszitatzen ninduen. Esku batekin lizunki laztantzen zuen bere gorputz gihartsua eta bertze eskuarekin zakar igurzten zuen bere hankartea. Hasperen egiten zuen bizkarra uzkuratuz eta hasperen egiten nuen bizkarra uzkuratuz. Gero eta azkarrago astintzen zuen bere hankartea eta gero eta azkarrago astintzen nuen nire hankartea. Aiene egiten zuen plazerez eta aiene egiten nuen plazerez. Bero, lizun, eta axolagabe, Erre urtu egin zen nire begi aurrean. Hark zeharo kitzikatu ninduen eta, intziri ttiki batzuk askatuz, bero, lizun eta axolagabe urtu egin nintzen Erreren aurrean. Niretzat. Beretzat.

Egun hartatik aurrera, nire amets hezeen ohiko protagonista bilakatu zen Erre, jarrera guztietan, tolestura guztietatik. Batzuetan era menderatzailean lotzen genuen elkar ohatzean, ballestrinke korapiloak erabiliz. Bertze batzuetan, aldiz, korapilo dinamiko fugatuak erabiltzen genituen, mugimendu askatasuna irabaziz soka gehiago eman ahal. Batzuetan Txindokiko ertzaren gisan gainkatzen genuen, luze, goxo, aise. Gordinki disfrutatuz. Bertze batzuetan erortze handiko sabaiaren antzera, motz, sutsu, leherkor. Antsietate hutsez.

Bistan denez, eskalatzera joaten ginelarik, bertze modu batez begiratzen nion Erreri.

Arratsalde batean "Los maños" izeneko bidea egin genuen Etxaurin, klasiko bat klasikoaren artean. Bideak lau luze ditu osotara laurogei metrotan eta apenas dago ekipatua. Han-hemenka zeure aseguru propioak sartu behar dituzu pausuak babes-teko. Lehenengo luzea, laugarren gradukoa, Emek ireki zuen, Errek aseguraturata. Erre eta biok bakarrik gelditu ginen lurrian. Bibrazio onak antzeman nituen gure artean. Erre Emeren atzetik abiatu zen ondoren, eta ni Erreren atzetik azkenean. Sokada hark nire egoera emozionalaren metafora zirudiela pentsatu nuen umoretsu. Bilgunea arbola batean zegoen, eta zabala zen, eroso. Hiru lagunak aise sartu ginen. Bigarren luzea, bortzgarren gradukoa, nik ireki nuen, Errek aseguraturata. Atzetik Erre etorri zitzaidan, eta Eme ondoren. Horrelako etorkizun batekin egin nuen amets. Bilgunea bertze arbola batean zegoen. Lehenen-

goa baino txikiagoa hala ere, eta elkarren kontra estutu behar izan genuen apur bat. Hirugarren luzean seigarren graduko pausua zegoen, plaka batean, eta Errek ireki zuen. Eme igo zen bigarren eta ni hirugarren. Egoera gordina zen ordena hura gauzak aldatu ezean. Hirugarren bilgunea zintzilik zegoen paretan, eta ez zegoen tokirik. Ondorioz, elkarren kontra baino, elkarren gainean kokatu behar izan genuen. Laugarren luzea, bortzgarren graduko die-droa, Emek ireki zuen eta Erre eta biok bakarrik gelditu ginen berriz. Irudia zoragarria zen. Etxauriko amildegiek gure oinetan egiten zuten hegan eta Erre zoragari zegoen atrezzo hartan. Alturak edertu egiten zuen Erre. Paretan zintzilik itsatsirik, bere usainak nire fantasia pornografikoentara eramanez ninduten une batez eta Errerenganako desirak gainezka egin zuen. Azken luzea Erreren atzetik egin nuen, ezin begirik kenduz bere gorputzetik.

Errerekin ari nintzen maitemintzen, zilegi bazait amodioaz solastatzea erakarpen sexualaz ari garelarik.

Axkin-Arrondora joan ginen goiz batean, Elgorriagatik sartuta. Ordura arte kareharrizkoak ziren eskalatuak genituen sektorek, Axkin-Arrondon aldiz, konglomeratua zen, errekarri txikiz osatutako arroka, alegia. Apur bat ezberdin eskalatzen da arroka mota horretan eta agerian gelditu zen gure teknika falta. Ederki sufritu genuen bortzgarren graduko bideetan.

Paranoia izan gabe, Erre eta bion artean kimika zegoela iruditu zitzaidan. Gero eta handiagoa gainera. Gehienetan nik aseguratzeko nuen, eta berak ni. Igo baino lehen goxo konprobatzen genion arnasa elkarri, dena ongi lotuta zegoela ziurtatzeko. Edozein aitzakia baliatzen genuen kontaktu apur bat edukitzeko eta ohikoak bilakatu ziren laztanak eta ferekak besoetan. Ematen zuenez, Eme ez zen ohatzen Erre eta bion hurbiltzetaz, edo, bertzerik gabe, ongi eramaten zuen eta futitzen zen.

Irailean erdialdean Eginora joan ginen asteburu pasa, bide luze pare bat eskalatzera.

-Eramanen dut kanpin-denda? -Galdetu nuen lo egitekoa lotzen hasi ginelarik.

-Ez, lasai, nire furgonetan sartuko gara hiruk. Apur bat estu baina sartuko gara.

Erreren erantzunak kitzikatu egin ninduen. Nik ere egin nahi nuen lo Errerekin! Alabaina, Eme egonen zen gurekin, eta ez zegoen zer gertatuko zen iragartzetik. Erre eta bion artekoak aurrera eginez gero, Erre eta Emeren ar-

teko pikutara joanen zen. Gakoa beraz, Emeren jarrera zen. Nola hartuko zuen? Eme laguna zen eta ez nion minik egin nahi.

Ortziralean hurbildu ginen Eginoraino, ilunabarrean. Lasaiago egonen ginelakoan, Lezeko parkingera joan ginen lo egitera. Errek erran bezala, estu sartzen ginen furgonetan. Gaitz erdi!

Larunbatean herriraino hurbildu ginen berriz eta elizaren atzean aparkatu genuen. Interneteko blog batetik ateratako informazioa baliatu genuen paretaraino joateko, GPS batek lagunduta. "Elmer" bidea hautatu genuen, "Lapiaz" bidearekin lotuta. Berrehun eta berrogeita hamar metro, 5c gehieneko zailtasunarekin. Zazpi luze osotara eta, zati erraz batzuk izan ezik, ia dena ekipatua.

Paretaren oinarrian prestatzeari ekin genion eta, nahi gabe, Erreri begiratu nion begi-bazterraz. Goiz hartan bertan furgonetan aldatzean bezala. Udan arras arropa gutxirekin eskalatzen genuen eta erran zitekeen Erreren gorputza biziki ongi ezagutzen nuela. Hala ere, begi-bazterraz begiratzen nion aldiro arropaz aldatzean. Batzuetan Erreren gorputz biluzia irudikatzen nuen masturbatzean eta bertze batzuetan arropa gutxirekin. Erre biluzia ala Erre arropa gutxirekin, zerk kitzikatzen ninduen gehiago? Usu egiten nion galdera hura nire buruari. Erotikoaren eta pornografiaren arteko eztabaida betierekoa etorri zitzaidan burura. Argudioetan sakondu gabe, nire fantasien Erre biluziak pornografia ordezkatzeko zuela ondorioztatu nuen. Arropa gutxiko Erre erdi biluzia irudi erotikotzat hartu nuen.

Nolanahi ere, argudioak argudio eta irudiak irudi, masturbazioa zen beti emaitza.

"Elmer" bidearen eskalada ongi joan zen, nahiz eta Emek mina hartu zuen esku batean. Kalitatezko kareharria zegoen leku gehienetan, itsaspen onarekin, eta erosioaren ondorioz sortutako "ur tanta" izeneko formazioak ohikoak ziren. Begetazio nahikotxo zegoen paretan zehar. Areago, bi puntutan, oinez egin behar izan genuen luzeen arteko distantzia zuhaitzen artean.

Gure arteko giroari zegokionez, aurreko egunen antzera joan zen dena. Emerekin ongi eta Errerekin arras ongi, alimaleko kimikarekin. Erreren eta bion arteko desira agerikoa zen. Baita Emeren aurrean ere.

"Elmer" bukatutakoan, ehun eta berrogeita hamar metro inguru egin behar genituen oinez "Lapiaz" bideraino, eta, soka bilduta, abiatu egin ginen. Eme zihoan

lehena, Errek itxoiteko eskatu zion arte.

-Uste dut eskuin aldera jo behar dugula gehiago -proposatu zuen Errek.

-Ez, oraindik ez -erantzun zion Emek-. "Lapiaz" eskuinean dago baina altura apur bat irabazi behar dugu oraindik.

-Seguru? Nahiko igo garela erranen nuke nik. "Lapiaz" eskuinago dago -Errek berriz.

-Bai, eskuinean dago, baina apur bat gorago -Emek tonua igo zuen.

-Seguru zaude? -Erreren iritzi berekoa nintzen ni.

-Baietz -itxi zuen Emek eztabaida-, ikusiko duzue.

Buelta erdia eman eta goiti segitu zuen Emek, mutu. Errek eta biok elkarri begiratu genion sorbaldak goratuta, eta Emeren atzetik abiatu ginen deus ez erran gabe.

Luze gabe, ertzaren gaineko aldera ailegatu ginen, "Lapiaz" bidea aurkitu gabe.

Errek hautsi zuen hiruon artean ezarria zen isiltasun ezerosoa.

-Sobera igo gara.

-Bai, noski, arrazoa zenuen, beti bezala -erran zion Emek zakar. Deus gehiago erran gabe, furgonetarako bidea hartu zuen ertzaren ezkerrean zihoan bidea hartuta.

Errek eta biok berriz begiratu genion elkarri, zeharo harrirituta Emeren jarrerarekin. Mutu, behar bideari ekin genion. Bide polita zen, esku-bandekin eta nahiko amilduta, baina ez genuen batere disfrutatu.

Furgonetara ailegatzean, bideak hausnartzeko aukera eman izan balio bezala, Emek barkamena eskatu zion Erreri.

-Barkatu lehenagoko erantzunagatik. Eskalada zoragarria izan den arren ez dut erabat disfrutatu -zauritutako eskua laztandu zuen Emek, aitzakia bila nire ustez.

-Lasai, Eme, lasai.

Furgoneta hartu eta Lezeko parkingera joan ginen berriz, afaltzera eta ohatzea prestatzera. Afaldu ondoren Emek benda bat paratu zuen mindutako eskuan eta paseo bat eman nahi zuela aipatu zigun, bakarrik, bere deabruen borrokatzeko. Azkeneko hau ez zuen berak erran, baina nik hori pentsatu nuen, ideiak ordenatu nahi zituela.

Nekatuta geunden eta gau erdia eman gabe sartu ginen hiruk lozaketara. Eme alde batean paratu zen, Erre erdian eta ni bertze aldean. Erre eta bion lo zakuak lehenbiziko momentu ukitu ziren. Lo egon gabe, isiltasuna berehala nagusitu zen furgonetako atmosferan. Arnasari eutsiz, apur bat mugitu nintzen. Erreren eta Emeren arnasak en-

tzuten nituen. Erreren bibrazioak sentitzen nituen, eta ziur nintzen erne zegoela. Emeren arnasak, aldiz, ez zidan pistarik ematen. Lo egonen zen. Ala erne. Mugitu egin nintzen lozakuaren barruan, eztula txikia egin nuen. Erreren bibrazioak ailegatzen zitzaizkidan. Emeren seinalerik ez. Lo egonen zen. Ala ez. Lozakuaren kremailera ireki nuen, eztula txikia egin nuen berriz. Erreren mugimendua nabaritu nuen. Emeren seinalerik ez. Lo egonen zen. Ala ez. Bat-batean Erreren eskua nabaritu nuen nire gainean.

-Erre -xuxurlatu nuen.

-Zer? -Galdetu zidan ahopean.

-Eme.

-Lo dago, lasai.

Sinetsi egin nion. Eskua hartu nion eta nire lozakuaren barruan sartu nuen. Poliki-poliki, bere aldera jiratu nintzen eta ahoa bilatu nion. Gure muturrek bat egin zuten eta, xuabe, mingainak gurutzatu genituen. Eskua bere lozakuan sartu nuen eta hainbertzetan amestua nuen gorputzaren geografia laztantzeari ekin nion. Ez nuen zaratarik egin nahi baina eszitzazioa erabatekoa zen. Mugimenduak kontrolatu nahi nituen, baina ezin nuen. Arnasketa kontrolatu nahi nuen, baina ezin nuen. Erre muxukatzen ari nintzela, Emeren silueta lokartuari begiratu nion begi-bazterraz eta ezin nuen sinetsi egiten ari ginea. Begiak itxi eta Erreren desireri errenditu nintzen. Goxo eta lizun, nire eskuek bere gihar guztiak eskalatu zituzten lepoa jaten nion bitartean. Berak nire hankartean galdu zuen eskua eta plazerari lotu zen, hasperen luzeak eginez. Lozakua ireki zuen gure larru gosetuei menu haragikoia eskainiz. Erreren gainera amildu nintzen eta gure gorputzadarrak korapilatu egin ziren. Konplexurik gabe, sexu-grinari erantzun genion, ero, zoro. Amasestuka, izerdiak gainezka egin zuen poro guztietatik. Aieneka hasi nintzen luze gabe bi eskuak nire hankartean fereka-dantzan ari zirela. Mina eta plazera nahasten zituen indarra sortu zitzaidan barne-barnetik eta zorabio txiki bat sumatu nuen. Gelditzeko, baina urrun joan gabe, eskua paratu nuen bere esku gainean. Arnasketa emeki emeki lasaitzean, nire onera hasi nintzen itzultzen. Bere eskuak laztandu nituen. Lasaiago amastu nuen. Bere eskuak laztandu nituen. Xuabe. Lasaiago amastu nuen. Bere eskuak laztandu nituen. Xuabe, poliki. Eskuetako batean traba egiten zuen zerbait sumatu nuen. Begiak ireki nituen eta benda ikusi nuen. Bendatutako eskua ikusi nuen.

Durdutatuta, kosta egin zitzaidan Emeren eskua ezagutzea.

RALLY-A

Joana Kamiruaga: "Pilo bat gustetan jata eta sano gustura ibili naz karrera danetan. Segidu egingo dot"

Kamiruaga dimoztarra rallysprintak egiten hasi zan igaz, kopilotu lez. Joseba Iñarra Erratzuko pilotuak bota eutsan hasteko proposamena, eta duda barik baietza emon eutsan Dimako gazteak. 22 urte beteko ditu aurten Kamiruagak, eta momentuz urte beteko esperientzia baino ez daukan arren, kopilotu junior txapelkun izan zan Malerrekako III. Rallysprintean.



Joana Kamiruaga.

Irati Urien

Zelan hasi zinan kopilotu?

Oin dala lau-bost urte hasi jatan interesetan. Sarri joaten naz Erratzura eta Joseba ezetu neban bertan. Afizinoa baneukan, lasterketak ikusten nebazan... baina lar jakin barik. Ea kopilotu joan gurako neuken esan eustan behin, eta pentsau barik baietz esan neban. Itzelezko aukerea zan, eta aprobe-

txau egin gura neban.

Hasieran ardura apur bat euki neban, ea mareauko nintzan edo bildurra pasauko neban. Probatxo bat egin genduan zelan konponduten nintzan ikusteko eta oso ondo joan zan. Ez nintzala mareetan ikusi neban, eta bildurrik eukiteko astirik be ez dauala emoten be bai. Gero, lizentzia egitea erabagi neban.

Non egin zenduan debuta?

Lesakan, XVI. Lesakako Rallysprin-

tean, igazko garagarriaren 20an. Oso berezia izan zan, nahiko rallysprint inportantea dalako. Izan be, pilotu eta kopilotu oso finak joaten dira bertara eta ohore bat izan zan hor hastea, zerrenda horretan egotea. Bere konplikazioak daukazan gunea da, baina oso polita. Eta ingurua be ederra da.

Behin hasita, zeintzuk izan dira egin dozuezan hurrengo lasterketak?

Igazko abuztuan bigarren karrera euki neban, III. Irurtzun-Arakil Rallysprinta. Hurrengo urrian izan zan, Garesko Rallysprinta. Horren ostean Malerrekako III. Rallysprinta izan zan zementidia hasieran. Bertan, kopilotu junior onenaren kopea irabazi neban. Luzea izan zan, Doneztebe-Labaien-Saldias-Orokietan, lau bider, 60 kilometro guztira. Nahiko karrera gatxa izan zan, jeitsiera handia dauka. Halanda be, denpora ona eginda eta ezbehar barik, sano pozik amaitu genduan pilotuak eta biok.

Nafarroako Txapelketako denporaldia amaituteko, zementidiaren amaieran X. Rallysprint Callaghanen hartu neban parte, Amedon. Bai Malerrekakoan eta bai Errioxan, klaseko kopea irabazi genduan Jo-

sebak eta biok.

Zein da zuen klasea? Eta kortexea?

Gurea *Clase 1 grupo N* da. *Clase 1* kontzeptuak esan gura dau 1.600 cm³ zilindradara arte dala, eta *grupo Nk* serieko motorra daukala, originala. Kotxeari jagokonean, gurea Citroen Saxo vts 16v da. Arakil Motorsport da gure automobil taldea.

Zelan entrenetan dozu?

Lasterketea baino aste bete lehenago, bertara joateko aukerea emoten deuskue. Holan, oharrak hartuten doguz baina ez karrean lez, arau batzuek: abiadura mugak errespetetan zein inorri oztopo egin barik. Modu horretan oharrak hartuta joaten gara eta pare bat bider erreparauta.

Pilotuaren aldean kopilotuaren beharrak errekonozimendu txikiagoa daukala esan leike?

Bai. Askok pilotua bakarrik hartuten dabe kontuan edo inportantetzat, baina kopilotuaren lana be benetan garrantzitsua da. Izan be, kopilotuak gidatu egiten dau pilotua, eta konfiantzea emoten deusko. Kopilotuak esaten dauana pilotuak egin behar dauana da. Nire beharra gehien bat bidea zelakoa dan akordau arazotea da, kurbeak ze itxiera gradu daukan, aldatsaren ostean kurba bat dagoan edo zer dagoan esan, laban egiten dauan... eta holango gauzak.

Zenbatekoa da andren partidetzea?

Kirol honetan nagusitasuna gizonak daukie, gizon eta andren arteko arrakalea oso handia da. Neska pilotu oso gitxi dagoz eta. Kopilotuak be gitxi, baina gero eta gehiago gara. Lesakakoan adibidez, 60 parte-hartzaile ginan, eta horreetatik neskak zortzi edo bederatzi.

Ze hizkuntzatan egiten dozuz kopilotu lanak?

"Kontuz hemen" eta holakoak euskeraz esaten deusadaz. Bai-

na oharrak erderaz egiten doguz akaso "eskuma, ezker!" esanda erratuteko aukerea handiagoa izan leikelako "derecha, izquierda" esanda baino. Baina gustauko jatan dana euskeraz egitea egia esan, oso polita izango zan.

Momentu berezirik?

Lehenengo lasterketea esango neuke, Lesakakoa. Oso garrantzitsua izango da niretzat beti. Oso ondo pasau genduan eta oso ondo joan zan. Haregaz batera Malerrekakoa da gehien gustau jatan. Atzen baten Malerrekako Erratzu ondoan dago, polita da, apur bat konplikaua be bai... eta horrek bere grazia dauka, ez da? Hain arteza ez izateak, hain zuzen be.

Zer suposatuten deus esperientzia honek?

Asko eskertuten deus Josebari aukera hau emon izana; izan be, gustau ahal jatzu baina zutaz fidatuten dan bat eta aukerea emoten deusuna behar dozu, ez da erraza eta. Gainera, lagun asko egin doz, ezagun asko, eta hori be inportantea da niretzat. Pilo bat gustetan jata eta sano gustura ibili naz karrera danetan. Segidu egingo dot, aurten be segidu egingo dogu.

Kopilotua zara baina, pentsau dozu inoz pilotu izatea?

Pasau jata burutik, bai. Eta pentsetan jarraituten dot, baina pilotu izateko diru asko behar da. Lehenengo aurreztu egin beharko neuke, eta baita beste gauza asko ikasi be. Ilusinoan egingo eustan pilotu izateak.

Zertan zabizie oin? Aurten, noz hasiko zarie barriro martxan?

Neguan kotxea prestatu eta deskantsau egiten da. Gure asmoa EAEko Txapelketaren barruan Arratian egingo dan rallysprintagaz hastea da, behin-behineko egutegiaren arabera San Pedro inguruan izango dana. Behin hori eginda, Nafarroako danak egiteko asmoa daukagu.



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net




www.alkizabal.net












ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAITZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

MENDIA



Kolazino Mendi Egunerako izen emotea zabalik dago

Erredakzioa

Martiaren 21ean izango da Tiritu Kultur Elkarteak antolatutako dauan VI. Kolazino Mendi Eguna. Atzen urteotan legez, hiru proba jakatuko dira egun horretan: Mendi Martxea, Mendi Lasterketea eta BTT Lasterketea. Izen emotea zabalik dago *sportmanics* webgunean, martiaren 14ra arte.

Probak gogorak izaten dira. Antolatzaileen esanetan, "urtero moduan, lokatzez betetako proba gogorak izango dira nagusi" aurtentzen be. BTT lasterketariak, 34 kilometro eta 1.300 metroko desnibela daukan ibilbidea egin beharko dabe; mendi lasterketariak barriz,

24 kilometro eta 1.600 metroko desnibelduna. Martxalariak, 20 kilometro egin behar izango ditue. "Hiru probak Mandoia inguruko mendietatik igarotzen dira, eta Santiagozar, Mandoia, Zeata eta Erosomendi tontorrek zapalduko ditue. Erabilten diran bideak, antxina herriko abeltzainak erabilten ebezan bideak edo antxinako bideak dira. Horrek, oin arte erabili barik edo zikin egozan bideak berreskuratzea ekarri dau" azaldu deusie BEGITURI antolatzaileak.

Ekimen honek, mendiaz gainera, programa zabal bat izaten dau: herri bazkaria, umeentzako puzgarriak eta jai giroan amaitzeko, erromeria Bediako plazan.

MENDI LASTERKETEAK

Hilaren 31n zozketatuko dira Gorbeia Suzien Mendi Lasterketako dorsalak



da Zeanuriko udaletxean.

Izan be, guztira 600 kirolarik izango dabe parte hartzeako aukerea. Antolakuntzak 125 dorsal gordeko ditu eliteko kirolarientzat, zirkuituko lasterkarientzat eta babesleentzat eta beste 100 dorsal, andren parte hartzea indartuteko. Zozketea nominala izango da eta egunean bertan emongo da jakitera partaideen zerrendea www.gorbeiasuzien.eus webgunean eta sare sozialen bidez.

Lasterketa laburra

Aurtengo edizinoan 21 kilometroko lasterketea be egongo da. Guztira 200 lasterkarik hartuko dabe parte bertan. Izena emoteko epea zezeilaren 3an zabalduko da eta dorsalak amaitu arte egongo da zabalik.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 27an jakatuko dan Gorbeia Suzien Mendi Lasterketarako izena emoteko epea urteagaz batera hasi zan eta hilaren 19an zarratuko da. Dorsalen zozketea hilaren 31n egingo

MENDIA

Himalaian dago Alex Txikon



Erredakzioa

Aurreikusita egoan moduan, Antartikako peninsulan nabigazioa eta eskaladea konbinatu dituan biaketik itzuli eta 48 ordu igarotzen dira, Alex Txikon Nepalera abiatu zan urtailaren 9an. Bertan, Road to Himalayas espedizioaren bigarren zatia egingo dau, Ama Dablam eta Everest neguan

igoteko helburuagaz.

Katmandun, Alex Txikon Ama Dablam beragaz igoko dauan gainontzeko taldekideak alkatu zan. Euren artean Himalayers adituak dagoz; berbarako Oscar Cardo eta Jonatan García (Everest igoten be saiatuko diranak), Ramón Portilla, Sergio Pérez, Francisco Miguel Fernández; Alejandro Albacete, David Javega,

Jesús Morales, José Manuel Zapata eta Francisco Hurtado, Nepalgo Pasang Sherpa eta Chhepal Sherpa, eta baita Félix Criado eta Iñigo Gutiérrez be. Azken eskalatazaille bi honeek autoz urten ziran Iberiar peninsulatik Paqui Vicedo eta Iker Mediavillagaz batera. Ia 13.000 kilometro egin eta hamabi herrialde zeharkatu dabez Katmandura ailegetako.

Hurbilketa trekking-ean, Juan Alejandro Martínez, José Urbano eta Jesús Bermúdez, desgaitasunak dituen hiru mendizale gazteak eta Amiab alkatetako kideak izango ditue lagun. Monitoreakaz batera (Alberto Pastor, Laura Maranchón, Fabrizio Terrazas eta Javier Palacios) eta Álvaro Sanz argazkilaria espero dabe Khumbu bailara osoa zeharkatzea 5.300 metrora dagoan Everesteko kanpo basera heltzeako.

Antartikan ibilbide bi zabaldu

Txikonek Antartikara egin barri dauan espedizioari jagokonez, Antartikako peninsulako uharreetan itsasoratu zanean, ekaitza saihestu egin eban Drake Pasabidean eta ibilbide barri bi zabaldu ebazan.

FUTBOLA

Lurraldeko Lehen Mailan jokatuko dau Arratia B-k

Erredakzioa

Arratia B nesken taldeak bigarren postuan amaitu eban ligan lehen fasea 34 puntugaz. Atzen partidua, urtailaren 5ean jakatu eban Adiskideak taldearen kontra etxetik kanpo 1-4 irabazita. Bigarren postu horregaz bigarren fasean sartuko dira eta Lurraldeko Lehen Mailan jokatuko dau B taldeak.

Datorren partidua, urtailaren 19an jokatuko dabe Derio taldearen kontra etxetik kanpo arrastiko 19:00etan.

Arratia A andrazkoak

Partidu bakarra jakatu dau Arratiak urtaileko lehenengo hamabostaldian. Urtilaren 11n Gasteizen jakatu eban Aurrera de Vitoria taldearen kontra launa bardinduz.

Hamalau jardunaldiren ostean laugarren postuan dago Arratia 25 puntugaz.

Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Igorreko taldeak Berriozar taldearen kontra hilaren 19an, goizeko 11:15ean.

Arratia A gizonetakoak

Atzen partidu bietan ez dau oso

emaitza onik lortu Arratiak, atzen 6 puntuetatik bakarra lortu dau eta. Husna bardindu eban Morazaren kontra etxetik kanpo, jakatutako urteko lehen partiduan eta 1-2 galdu eban urtilaren 11n Otxarkoagaren kontra Urbietan.

Hamasei jardunaldiren ostean hamalaugarren postuan dago Arratia 17 puntugaz.

Datorren partidua Erandion jokatuko dau Arratiak Apurtoarteren kontra hilaren 18an 17:00etan.

Arratia B gizonetakoak

Arratia B taldeak ondo hasi dau urtea eta urtaileko lehen parti-

duan 3-1 irabazi eutsan Zorronzako taldeari etxean. Hilaren 11n ostera bina bardindu eban Elorrio B taldearen kontra.

Hamasei jardunaldiren ostean zazpigarren postuan dago Arratia B 24 puntugaz.

Datorren partidua Bakioren kontra jokatuko dau Arratiak Urbietan hilaren 18an 19:45ean.

LemoaHarrobi

LemoaHarrobik ondo ekin deutso 2020ari. Hilaren 4an bana bardindu eban etxean Solokoetxeren kontra; jakatutako atzen partidua barriz 0-1 irabazi eutsan Loyola Indautxuri etxetik kanpo.

Datorren partidua Montefueteren kontra jokatuko dau LemoaHarrobik Arlonagusian hilaren 18an 17:00etan.

Hamasei jardunaldiren ostean hamabigarren postuan dago LemoaHarrobi 18 puntugaz.



Arratia B taldea.

JANTZA IKUSKIZUNA

Burdina, lan intimoa eta unibersala aldi berean

Hilaren 25ean, 20:00etan, Adriana Bilbao jantza konpainiaren *Burdina* ikuskizuna eskainiko da Igorreko Lasarte Aretoan. Flamenko doinuak eta jantzak, batetik; eta, euskal musika eta kantuek bestetik, buztartuko dira bertan. Beñat Achyari eta Adriana Bilbao dira egileak. Sei euro ordaindu beharko dabez bazkideak, zortzi gainontzekoak.

Erredakzioa

Meatzaritzearen eta industriaren testuinguruan kokatuten da koreografia hau. Beharginaren irudia aitortu gura da ikuskizunean, eta horretarako, iberiar peninsulearen hegoaldeko Bizkaiko meategietara heldu ziran andrak eta gizonak mahai-gaineratuten dira. Hori dala eta, peninsulako iparraldearen eta hegoaldearen arteko alkarreragina, eta desberdinak diran kulturak aberastutea dira berbagai. Batez be historian zehar ezkutan egon diran an-

drai emon gura jakie garrantzia. Horren harira, andra bat da antzezlekuan jantzan egiten duan persona bakarra, Adriana Bilbao jantzari bilbotarra hain zuzen be. Beragaz batera oster, Beñat Achyari abotsak, Raúl Micó flamenko kantariak, Guillermo Gillen gitarristak, Michel Queuille pianojoleak, zein harri-zulataileak, Luis Mariano Casilla, Ander Eceiza eta Koldo Plazasek osotuko dabe lantaldea. Ikuskizunean Gabriel Aresti eta Itxaro Bordaren olerkiak taularatuko dira, eta baita Jon Etxezarragaren argazkiak be.



JANTZA IKUSKIZUNA

Arantzarte jantza taldeak ikuskizuna eskainiko dau Igorreko kiroldegian

2019ko maiatzean 45 urte bete ebazan jantza taldeak eta urtailaren 18an, 18:30ean, oingo eta lehengo jantzariakaz jantza ikuskizuna eskainiko dau Igorreko kiroldegian.

Erredakzioa

Ospakizun jaia igazko urrietan egin baeben be, euren ibilbide luzea ospatuten jarraituko dabe ikuskizun honegaz. Zuriñe larrituk aurkeztuko dau ekitaldia.

Gaur egungo jantzariak, 15 urtetik gorakoak, emongo deusie hasikerea ikuskizunari. Eta gero, oin 45 urte jantzan hasi ziranetako batzuek jantza bi egingo ditue, *Leitzako ingurutxue* eta *Imotzgo eskudantza* hain zuzen be. Ostean, jantza taldeko "beteranoen"; hau da, ointsu arte taldean egon diranen txandea izango da. Horreek, jantza desbardinaren zatiakaz egindako muntaia bat eta hiru kontrajantza egingo dabez.

Ostean umeak, *Zazpi jantza*, *Lantzeko ihauteriak* eta *Axuri beltza* jantzak egingo dabez. Proiekzio bat be egongo da, taldeak egindako biajeen barri emongo dauana. Izan be, bere ibilbide luzean Arantzarte mundu zabalean ibili da euskal jantzak erakusten.

Eguaztenetako ikastaroko ikasleak be egongo dira publiko aurrean, jantza batzuk egiten. Amaitzeko, oingo jantza taldekoak, *Xoxua*, *Arkupe* eta *Ataungo ardi beltza* jantzatuko ditue. "Honeek hirurak dira, Korrontzik jotzen dauzanak. Abenduan, Areatzako



Banda eta Korrontzigaz batera egin genduan ikuskizun bat eta honeek ikuskizun haretakoak dira" azaldu deutso BEGITURI Juan-ti Menika taldekoak.

Lokal bila Igorreko Kultur Etxea egin eben arte

Arantzarte 1974ko maiatzean hasi zan. Arantzazun egindako bilera batetik sortu zan eta ensaioetarako lehenengo lokalak Artean izan ebezan, gabrielinoen eskolan lehenengotik eta sakra-

mentinoetan, gero. Leku egokiak ez zirala eta Zulaibarrera pasau ziran. Gero Zeanuriko eskoletara joan ziran. Arteko eskoletan eta Dimako eleizpeko lokalean be egonda dago Arantzarte ensaioak egiten. Atzenean, 1980tik aurrera, gitxi gorabehera, Institutuko gimnasioan egon ziran, Igorreko Kultur Etxea zabaldu zan arte. Ordutik hona, hantxe egiten ditue ensaioak eta emoten ditue ikastarok. Umeai jantzak erakusten 1980 aldera hasi ziran.

ZURE ZERBITZURA

Avia guztira 192 gasolindegia
Avia Adenor 35 gasolindegia

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

**Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua**

AVIA

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

Operazio zentroa
Bilboko Portu Autonomoan



KONTZERTUAK

Raust! taldeak *Odisea* disko barria aurkeztuko dau Kiñu Gaztetxean

Erredakzioa

Urtailaren 25ean, Igorreko Kiñu Gaztetxean hiru taldek joko dabe; Bilbo inguru eta Igorreko Raust! taldeak, Donostiako Pelax taldeak eta Temati talde gasteiztarak. Kontzertuok 20:00etan hasiko dira eta aitatutako lehenengo banda biak, euren atzen diskoa aurkeztuko dabe.

Odisea deitzean da bizkaitarren lan barria. Diskoa 2019ko martia eta abuztuaren bitartean grabauzan, Aitor Ariñoren gidaritzapean, Berrizko Lorentzo Records-en. Raust taldea 2015ean sortu zan Deustuko jaietan bersino gaubean joteko asmoz. Gaur egun, Bilbo inguruko eta Igorreko bost lagunek osotuten dabe taldea: Asier Salazarrek (bajua), Iñigo Torresek (gitarra), Unai Luzuriagak (bateria), Aitor Martinez de la Perak (gitarra) eta Karmelo Usategi igorretarrak (abotsa).

Pelax Donostiako taldeak be, igazko aprilean grabautako azken lana, disko bikotxa, aurkeztuko dau. Grabaketean Berako Atala estudioan egin zan, Iñigo Irazokiren zuzendaritzapean. Pelax-ek beste lau disko ditu kalean. Iker Vazquezek (bateria), Iñigo Ozaetak (bajua), Andoni Olaetxeak (gitarra) eta Unai Pelayok (gitarra, abotsa eta hitzak) osotuten dabe taldea.

Temati postrock talde gasteiztarra be izango da Kiñu Gaztetxean. Ber-

tan, 2017an grabautako *Transmititu* diskoko kantuak joko dabez eskarmentu handiko musikari honeek.

Lendakaris Muertos

Lendakaris Muertos taldeak zezeilaren 8an joko dau. Ateak 21:30ean zabalduko badira be, kontzertua ordu bete beranduago hasiko da. Sarrerak salgai dagoz zortzi euroan, Igorreko Axular Herriko Tabernan zein musika taldearen webgunean.

Iruñeako musika taldearen ezau-garriak punk ortodoxoa, abiadura handia, gai oso laburrak, etenbako koroak eta ironiazko letrak erabiltea dira. Bereizgarri horreekaz, Euskal Herriko eta Espainiako gai sozial eta politikoai buruz egiten dabe berba, umorea eta kritikea buztartuta.

Podrán cortar la droga pero no la primavera zortzigarren diskoaren aurkezpen bira Bartzelonako Sala Apolon amaitu eben sarrerak agortuta. Igazko urtailan izan zan hori, eta handik gitxira, zehaztubako geldialdia iragarri eben. Etenaldi horeri iraugipen-data heldu jako oster, Igorren eskainiko dabe eta euren bueltako lehenengo kontzertua.



Raust! taldea.

KARABIE GAZTETXEA

Gaztetxea erre zaneke urteurrena ospatuteko jaia egingo dabe hilaren 19an

Erredakzioa

Lemoako Gazte Asanbladak 1999 urtean sortu eban Karabie Gaztetxea. Harrobian egoan txabola bat hartu eben horretarako eta horregaitik ipini eutsen Karabie izena. Urtebete beranduago erre egin zan txabola eta harrezkerotik eskolak izandako Udalaren eraikineren aldatu ziran gazteak. Erre zaneke eguna gogora

ekarteko eta Gaztetxearen ibilbidea ospatuteko, hilaren 19an, Karabie zaharrera joango dira Gaztetxe-koak. 11:00etan batuko dira eta Tiraxinas Lehiaketea eta hamaiketako egingo dabe Karabie zaharrean.

Hilaren 24an be, kontzertuak egongo dira Karabie Gaztetxean, gaueko 22:30etik aurrera. Liskar eta, *A.B* diskoa atera barri dauan Sutan taldeak animauko dabe gaua.

DIMETAL

Cobra eta Eraso! Dimetal jaialdian izango dira

Erredakzioa

Eraso!, Cobra, Bullets of Misery, Sealed Room eta Mutilated Judge arratiarrak joko dabe urri lehenengoaren 25 eta 26an Dimetalen seigarren edizinoan.

Antolatzaileak jakitera emondakoaren arabera, Mutilated Judge, girdcorea egiten dauan Arratiako bikotea Diman ikusteko aukerea egongo da; baita, Sealed Room rock metal laukotea eta Bullets of Misery rural death boskotea be, biak Busturialdekoak. Eraso! talde zarautzarrak, 2016an Dimetal jaialdiaren bigarren edizinoan be egon zan, baina aurten "taldearen 25. urteurrenean, euren rock emo metalak beti bezain bizi eta gogor dirauala erakusteko" egongo dira Diman.

Cobra, Euskal Herriko rock metal taldeak be hitzordua dauka jaialdian, *Riffyard* "euren kreatura barria Diman aurkezteko" antolatzaileen esanetan. David Gonzalezek, (Berri Txarrak, bajua), Josu Luengok (Evirus69, gitarra), Haritz Letek (Kokein, abotsa) eta Ekain Elorzak (Morgan, bateria) osotuten dabe taldea.

Hamar talde

Dimetaleroak Kultur Elkarteak, antolatzaileak, daborduko kartela osotuko daben hamar talde emon dabez jakitera. Soziedad Alkoholika (Gasteizko crossoverra), Killus (Vila-Realeko glam-dark/metal industrialia), Etorkizun Beltza (Gernikako heavy metala), Elizabeltz (Bermeoko rock/metala) eta Cult of Misery (Bilboko crust/death metala) taldeak dira aurretik iragarritakoak.



DUNBA

Harrotxu Lemoako ikastetxean

Aurreko urteetan legez, aurten be, Harrotxu etorri zan Lemoako ikastetxera Euskerearen Eguna gugaz ospatzera.

LH 6. eta DBH 1. mailako

Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleak

Harrotxu Euskera planetatik hegazkin baten, poz betean datorren personaje urdina da. Beti mezu

hau botaten deusku berbaz entzutean: "Harro bizi euskeraz guztion artean", bere planetan hizkuntza asko jakin arren euskeraz berba egiten dabelako.

Euskera Eguneatik aparte beste hainbat ospakizunetan be bere etorrereagaz gozatzen dogu, eta beti ekarten deusku opariren bat, besteak beste bere planetako "txupatxus" urdinak. Ikasle txikiak bere irudiagaz eskultura eta panpin txikitxoak egiten deusiez plastilineagaz. Guk ondo etorria emoteko bertso batzuk prestatzen deusguz bere omenez abesteko. Honeek dira aurten berari eskainitako bertsoak:



Euskeraren eguna urte guztian da eta abenduaren hiruan parranda.

Harrotxu etorri da bisita egiten euskararen txupatxus urdinak banatzen.

Harrotxu triste dago gorritu egin da

beraren planetatik dau guri begira.

Euskeraz bizi nahi dut orain eta beti besoak zabaldua joateko urruti.

Hizkuntzak egiten du indartu herria euskeraz hitz eginez esaldi berria.



Euskera mingainean jolastu ikasi ahoa irekita gu euskeraz bizi!!

Erosi, dantzan egin ta gauza gehiago euskera eguneroko arduretan dago.

Euskeraren eguna urte guztian da eta abenduaren hiruan parranda.



AGENDEA

URTAILAK 16

AREATZA
09:00etatik 13:00etara, Udalak antolatuta, desfibriladoreak erabiltzen ikasteko formazio saioa. Izena 94 673 90 10 telefonoan emon. Plaza mugatuak.

19:30etik 20:30era, Lamino Kirol Klubagaz federetako aukerea, udaletxeko 3. solairuko lokalean. AKKBko bazkidetza egiteko aukerea be egongo da. Federetako taldeko bazkide izan behar da.

BEDIA
Martian 14ra arte, Kolazino Mendi Egunean izena emoteko epea zabalik dago *Sportmaniacs* webgunean. Mendi Martxa, Mendi Lasterketeta eta BTT Lasterketeta martian 21ean izango dira.

IGORRE
Zezeilaren 8an izango dan izotz pistara urtekerarako izen emotea zabalik hilaren 17ra arte. 12-16 urte bitarteko gazteentzat. Izena Kultur Etxeko Gazteria Zerbitzuko bulegoan, 688 898 765 telefonoan edo maratu.igorre@gmail.com helbidean emon behar da. Igorrekoak 5 euro, Igorren ez erroldatuak 7 euro.

LEMOA
Hilaren 17ra arte, Lemoa Pausoz Pauso erronkan izena emoteko epea.

20:00etan, Herri Txiki, Infernu Handi ekitaldia kiroldegiko kantxan. Bideo proiektzioa, Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadiren monologoak eta Sebastian Lizasoren bertsoak.

UBIDE
Larraz ordaintzeko epea hilaren 29ra arte.
ZEANURI
Urri lehenengoaren 27an izango dan Gorbeia Suzien lasterketarako izen emotea zabalik hilaren 19ra arte www.gorbeiasuzien.eus webgunean.

Silbia Adaliaren eskutik maiztera arte eguenean 18:30etik 20:30era egingo dan diafreoaren gaineko ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Taldea bete arte. Hilean 70 euro, kide eta langabetuak 55 euro. Izena eguzkiola@gmail.com helbidean emon. Eguzkiolak antolatuta.

Diafreoa
Silbia Adalia



Gorputza eta emozioak landu diafreoaren bidez.

Ikastaroa: 11:00-13:00
Eguzkiola, Zezenen

Inbertsioa: 10000, 70 €
Kideak eta langabetuak, 55
izen-emotuz-eguzkiola@gmail.com

URTAILAK 17

AREATZA
16:30etik 18:00etara, Areatzakako Parketxeak antolatuta, taloak egiteko tailerra, Parketxean bertan. Lehen Hezkuntzako haurrai zuzendutako jarduerak.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra udaletxean.

LEMOA
20:00etan, Ganzabal Mendi Taldearen Asanblada Orokorra. Jubiladuen lokalaren gaineko aretoan.

ZEANURI
19:30ean, Laratzue Kultur Elkartek

antolatuta, *Deportazioa eta iheslariak* berbaldia. Hizlariak: Mikel Korta (Kalera Kalera) eta Jon Irazola eta Esti Bengoetxea (iheslari ohiak) Kultur Etxean.



ZEBERIO
San Anton Barañaño auzoan. 12:00etan, mezea. Osteen barsuskaria.

URTAILAK 18

DIMA
11:00etan, *Biharamungo momentu gozoak landatu* Jakoba Errekondogaz saioa eskolako negutegian.

IGORRE
18:30ean, Arantzarte jantza taldearen 45. urteurreneko ikuskizuna kiroldegian.

22:00etan, zinea *Si yo fuera rico* Lasarte Aretoan.

URTAILAK 19

IGORRE
17:00etan, zinea *Frozen II*; 19:30ean, *Si yo fuera rico* Lasarte Aretoan.

LEMOA
08:00retan Igorren eta 08:10ean Lemoan, Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. Irukurutzeta (898 m.)-Kurutzebakarra (902 m.)-Karakate/Kortazar (756 m.)-Elosumendi (885 m.).

11:00etan, Karabiera igoerea, Tiraxinas Lehiaketea eta hamaiketako Karabie zaharreen. Karabi zaharren erreketaren urteurrena.

ZEBERIO
08:00retan, Austarri mendi taldeak antolatuta, Oriñon-Candina-Laredo ibilaldia (11 kilometro). Plazan.

URTAILAK 20

LEMOA
Hilaren 31ra arte, gazteentzako Europako bidaian izena emoteko epea zabalik. 1999 eta 2002 bitartean jaiotakoak lehentasuna izango dabe.

URTAILAK 22

IGORRE
18:30ean, Euskal diaren Arratia Foroa

Kultur Etxean.

URTAILAK 23

AREATZA
19:30etik 20:30era, Lamino Kirol Klubagaz federetako aukerea, udaletxeko 3. solairuko lokalean. AKKBko bazkidetza egiteko aukerea be egongo da. Federetako taldeko bazkide izan behar da.

IGORRE
16:30ean, Igorreko Jubiladuen Bazkideen Batzar Orokorra. Jubiladuen lokalean.

LEMOA
19:00etan, Makatzak talde ekologistak antolatuta, *Badakigu zer arnasten dugun gure herrian?* berbaldia GuraSOSen Joseba Belaustegiren eskutik Elizondoko Kulturguneko gela lilan.



URTAILAK 24

ARTEA
Mugak zabalduz karabanaren Estatu mailako topaketak. 19:00etan, harrerea eta izena emotea; 21:00etan, afaria Kultur Etxean; 22:30ean, kontzertua Herriko Bentan.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

BEDIA
18:15ean, astegoieneko eski urtekerea Baqueirara udaletxe ondoan.

LEMOA
22:30ean, kontzertuak Liskar eta Sutan taldeak Karabie Gaztetxean.

ZEBERIO
18:00etan, 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat, *NireApp mugikorretako aplikazioak sortzeko* tailerra Gaztelekuan.

URTAILAK 25

ARTEA
Mugak zabalduz karabanaren Estatu mailako topaketak. 09:30etik 14:00etara, goizeko jardunaldia; 14:30ean, bazkaria; 16:30etik 20:00etara, arrastiko jardunaldia; 21:00etan, afaria Kultur Etxean; 22:30ean, kontzertua Herriko Bentan.

11:00etan, Desert Panda 2020ren aurkezpen ofiziala. Saharako umeentzat erropa eta material biltzeketa. Plazan.



IGORRE

20:00etan, Adriana Bilbao jantza konpainiaren *Burdina/Hierro* Lasarte Aretoan.

20:00etan, Rausti, Pelax eta Temati taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

URTAILAK 26

ARTEA
Mugak zabalduz karabanaren Estatu mailako topaketak. 09:30etik 11:00etara, goizeko jardunaldia; 11:00etan, jardunaldien amaiera eta dokumentua onartzea; 11:30ean, pelota erakustaldia frontoian; ostean bazkaria.

IGORRE
17:00etan, zinea, *Jumanji: el siguiente nivel*; 19:30ean, *Puñales por la espalda* Lasarte Aretoan.

URTAILAK 27

ZEANURI
17:30ean, *Ilekordak, trentzak, txirikordak...* tailerra Rosana Pedrosaren eskutik Eguzkiolan.

URTAILAK 28

IGORRE
18:30ean, *Hurren aurkako sexu abusuk* berbaldia Gure Sarearen eskutik Kultur Etxean.

URTAILAK 29

IGORRE
19:00etan, Basoa Fundazioak klima aldaketaren aurrean ekosistemak hobeto egokitzen laguntzeko proiektua diseinatu eta gauzatu dau. Urkiolakoko Parke Naturalean garatutako proiektu honen dokumentalaren proiektzioa Kultur Etxean. Goi mendietako jaubetzak, klima aldaketara, beru ekiditen dauan karbonoaren metatzea, bertako zuzatz eta zuzaguen ekoizpen eta landaketea bezalako gaiak jorratzen ditu filmak.



URTAILAK 30

AREATZA
19:30etik 20:30era, Lamino Kirol Klubagaz federetako aukerea, udaletxeko 3. solairuko lokalean. AKKBko bazkidetza egiteko aukerea be egongo da. Federetako taldeko bazkide izan behar da.

URTAILAK 31

LEMOA
19:30ean, *Kaixo-Hei!* dokumentalaren aurkezpena. Lemoako gazteak Finlandian. Gaztetxean.

ZEZEILAK 1

IGORRE
22:00etan, zinea.

ZEZEILAK 2

IGORRE
17:00etan, umeentzako zinea; 19:30ean, zinea Lasarte Aretoan.



Bertso saioa Zeanurin

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Unai Agirre, Onintza Enbeita eta Agin Laburuk osotutako seikotea izango da aurten Zeanuriko bertso saioa girotuko dauana. Gai jartzaila beharrak Eñaut Intxaurraga zeanuriztarrak egingo ditu. Udalaren laguntzeagaz Zeanuriko Kultur Batzordeak antolatu dauan saioa urtailaren 19an izango da, herriko Ibarreta frontoian, 18:00etan. Sarrerak egunean berean erosi ahal izango dira, ordu bete lehenago zabalduko dan frontoian bertan.


Beste behin punta-puntako saio orekatua prestatu gura izan dabe antolatzailak 16. edizioan, eta baita lortu be. Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapeladuna, Onintza Enbeita Bizkaikoa eta Beñat Gaztelumendi Gipuzkoako txapeladuna etorte gura izan dabe Zeanurikoak, baina Gaztelumendik ezin eta Gipuzkoako txapeladunordea etorriko da atzenezan, Agin Laburu. Unai Agirre pare bat bider kantautakoa da Zeanuriko oholtzan. Unai Iturriaga eta Andoni Egaña osteran, urtaileko bertso saio honetan beterranoenak dira.

Barikuro atek zabalik daukazan Zeanuriko Bertso Eskoleak saio bi presatzen ditu, falta barik, urtero. Batetik, bertso afaria udagoienean; eta, bestetik, urtaileroko saioa. Bestela be egoten da bertso eskaintzea herrian. Izan be, meza osteko saioetatik aparte, oin dala gitxi Mazala Andra Taldeak antolatutako *Ez da kasualitatea* bertso saioa egin zan Kultur Etxean.



AKIMIKO

K a i l o R e n



IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalga, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak dira. Deitu 657 777 542 zenbakira.

TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

DANERIK

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

BASERRI BILA

Lagun bi, alokairuan hartzeako baserri bila gabiz. Deitu 690 984 588 edo 678 902 509 telefonora.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako

Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezker, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emaillean, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zeozor saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera ***Puñales por la espalda*** filma ikusteko.

Peru Perez de Anuzita (Areatza)
Bego Tabera (Artea)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera ***Burdina jantza*** ikuskizunerako.

Inma Sagarna (Zeanuri)
Gotzon Aurrekoetxea (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semoda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 72

begitu
argitaletxeak

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 609 482 830 • 609 200 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tf: 94-673-70-87
Tf: 609-79-40-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUNATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29
Telefonoa: 94 673 60 14
IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Arantia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

begitu

arratia ubide zeberio

**2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!
BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Aurreko hamabostaldiko irabazlea Zigor Folla izan da.

Hori egitegaitik **Areatzako** Bainuetxean lagun birezako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.